

# JAKITURIA

Jakituriz ta maitasunez beteriko Jaungoikoaren asmoak apurtuta, lurperatuta geratu ziran. Baiña zer dauka gizonak bere Egillea ezagutu ta onartu nai ez izateko...? Ba-dator eta ba-doa ta bien bitartean ez al dozu begiratu, nora etorri zaran ta nora zoazen...? Zertarako sortua izan zara...? Zeuk ez zenkiala etorri ziñan, baiña adimenez apaindurik eldu ziñan ezkerro, zeure buruan zeunkan argi txintia zure bizitzaren gora-bera guztiak jakin al izateko da.

Askok zergaitik ez dabe jakin nai izan euren Egillearen barri...? Norberekoikeriak itsutu zituen gizonak ta ez eutsen parkatu norkeriak giza semeak bere menpean artu arte. Ura zan poza aundikeriarena. Bere biziaren barri jakin ez, ta goiek artuta, aizearen antzera. Nora doan ez dakiala egin ta amaitzen dau bizia.

Jaungoikoaren asmoa apurtuta geratu zan ta ondame-na gizonaren gaiñera eldu zan. Arrokeria, aundikeria, basati landara orrek nagusitu ziran gizartean ta gizadiko lora eder izan bear leuken anaitasuna galdu zan zoritxarpean, ta ondoren munduak okerbidea artu eban.

Nauskeria, gogotsu ebillen munduan, ta iñoiz ez dau-tso izten bere arloari al dana al dan eran zapaldu arte. Anaitasuna joan zan ba lurtarren artean, ta norberekeriak alegiñik aundienak egingo ditu ingurukoak zapal-tzen. Uztarri txarra gizonen gain eldu dana, ta gaiñera, artoa ta okerra. Personen izatea baiño, pizti zakarren griña geiago dirudi.

Au da ezbearra... bakerako jaiok izan ta gizonak berak asarrea, ikusi eziña ta zapaltzea sortu, ta ortan gaiñera, puztu egiten da ta arrokeri ta nauskeriak ez dau-tsoe ez maitasunik ez anairik urko lagunengan ikusten izten.

Biziaren sorreran bertan, sortu ziran arrokeri, nauskeri ta zapaltzeak zer ondoren ekarri lezkigue gaur. Zer esan leike gaiztakeri oker onek jakituri aldrebestu bate-gaz buztartu ezkerro... Zer egiten dabe gaur bertan, sendi, erri, ta lan-toki-etan... Anaitasun deadarrak alderdi batetik ta zapaltze biorrak bestetik ezagutu ditugu gure gizartean.

Ta alderdi batetik alkartasun deadarra ta maitasun deia entzuten ba-da, bestetik ulertu eziniko gorroto ta zapaltzea ikusten dira ta norbere nauskeria edertu ezinik ibiliko dira. Au da mundu kaskar baten jokabidea.

Gauz onen bidez aberatsak, zuzengabekerizko ondanez asetu dira. Euren agoan min guzurtia dauke. Mikeas. 6, 3-12.

Patiñetik ura sortzen danez, alantxe sortzen da gaiztakeria andik, an, ez da andikeria ta auzikeria ta auzibearra baiño entzuten.

Beti, nire aurrean zartadak eta zauriak. Izan be, txiki ta aundi, guztiak norberaren ona billatuten diardue eta igarle eta abadeak iruzur egiten.

Nire erriaren auste, -be jota egotea- aringa, osatu nai dabe... Bakea, bakea esanez, baiña ez dago bakerik. Jer, 6, 7-14.

Jaungoikoak bizitza ta lan ardura onek mundu larriari agertu dautsoz, benetan justizia, zuzentasuna nai dabelako lan arloetan ta irabazietan. Ta emon bere, iñork emon ezin leikiozan erantzupen ardurearen menpean. Ta atan bere, ez Israeladarrak aldi aretan ta ezta gaurko munduak bere ezin ditu ontzat artu irakatsi ongari oneik ta onen bitartez munduagazko zuzentasun ardura onen jaubea.

SOLOZABAL'dar Paulin

UMEAK ONDO EZI **EGIZUEZ**  
ETA EZ DOZUE GERO  
**BURU-AUSTERIK** IZANGO

(PITAGORAS' EK)

